

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2019ko UZTAILAREN 4an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2019ko uztailaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 16.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jesus Maria Tejada Cantero
Mireia Ruiz Delgado
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Aitor Beistegui Fiallegas


Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Aitor Beistegui Fiallegas jaunak bere zinegotzi kargua hartzeko aitortpena, hala bada./ Declaración de Aitor Beistegui Fiallegas para tomar posesión del cargo de concejal.**
- 2. Alderdi politikoaren eraketaz berri ematea/Dar cuenta de la constitución de los grupos políticos.**
- 3. Udalbatzarreko batzarraldien maiztasuna onestu/ Aprobación de la periodicidad de las sesiones plenarias.**
- 4. Batzorde Informatzaileak sortu eta eratu/ Creación y composición de las Comisiones informativas.**
- 5. Korporazioa ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatueterako ordezkariak izendatzea/Nombramiento de representantes de la Corporación en organismos.**
- 6. Alkateordeak izendatzeko Alkate jaunak hartutako ebazpenen ezagutzea/ Dación de cuenta del nombramiento de los Tenientes de Alcalde.**
- 7. Gobernu Batzordea sortu eta parte izango diren kideen izendapenari buruzko Alkate andreak hartutako ebazpenaren ezagutzea/Dación de cuenta de la constitución de la Junta de Gobierno Municipal y nombramiento de los miembros de la misma.**
- 8. Alkatearen soldata eta zinegotzientzako dietak batzarretara etortzeagatik/Asignación al Alcalde y dietas a los miembros de la Corporación por asistencia a sesiones.**

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

AITOR BEISTEGUI FIALLEGAS JAUNAK BERE ZINEGOTZI KARGUA HARTZEKO AITORPENA, HALA BADA

Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaile andreak adierazi du, pasa den maiatzaren 26ko tokiko hauteskundeen emaitzak ikusirik, ekainaren 15ean Udal korporazioa eratu zela, hautatuak izandako 7 zinegotzietatik 6 bertaratu zirelarik.

Ikusita, ekainaren 15ean egindako Udalbatzarrera Aitor Beistegui Fiallegas jauna, zinegotzi hautagaia, ezin izan zuela udalbatzarrera etorri.

Ikusita, Aitor Beistegui Fiallegas jaunak Larraulgo Udaleko zinegotzi kargua hartzeko betebeharrak guztiak burutu direla.

Alkate andreak gonbidatu du bateraezintasun kausarik balu ekintza honetan aldarrikatzera, Aitor Beistegui Fiallegas jaunak ez dituela adierazi duelarik.

Apirilaren 5eko 707/1989 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzea beharrezkoa denez (Hauteskunde Erregimenaren Lege Organikoaren 108.8 artikuluekin erlazionaturik), Aitor Beistegui Fiallegas jaunak, hitza ematen du bere karguari dagozkion obligazioak zintzo beteko dituela, Erregeari leialtasuna gordez eta Konstituzioa, Estatuko arau nagusi gisa bete eta betearaziko duela, kasu guztietan.

BIGARRENGO PUNTUA

ALDERDI POLITIKOEN ERAKETAZ BERRI EMATEA


Udalbatzari jakinarazi zaio ondorengo talde politikoa eratu dela:
-2019ko ekainaren 15an SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK alderdi politikoa eratu zen.

Bozeramailea Aitor Beistegui Fiallegas izango da eta ozdezkoa Maialen Alonso Labandibar. Ondoko zinegotziek osatuko dute aipaturiko alderdi politikoa:

Maite Arana Perez
Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jesus Maria Tejada Cantero
Mireia Ruiz Delgado
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Aitor Beistegui Fiallegas

HIRUGARREN PUNTUA

UDALBATZARREKO BATZARRALDIEN MAIZTASUNA ONESTU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udal behin-behineko Idazkariak, Alkate andreak agindurik, Entitate Lokaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 38 eta 78.artikuluen berri ematen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.-Udal Osoko batzarraldi arruntak hileko azkeneko ostegunean, arratsaldeko 16.30etan egitea, eta jaia tokatuko balitz, laneguna den hurrengo ostegunean.

LAUGARREN PUNTUA

BATZORDE INFORMATZAILEAK SORTU ETA ERATU

Entitate Lokaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 38.artikuluaren arabera, Alkate jaunak proposaturik, Udalbatzak, aho batez, ondoren aipatzen diren Batzordeak eratzea erabakitzen du, ondorengo zinegotziak osatzen dituztelarik:

- *Kulturako batzorde informatzailea:*
Aitor Beistegui Fiallegas, Maialen Alonso Labandibar eta Jesus Maria Tejada Cantro.
Batzordeburua: Aitor Beistegui Fiallegas.

- *Ogasuna eta Kontuetako Batzorde Berezia:*
Maite Arana Perez, Aitor Beistegui Fiallegas eta Maialen Alonso Labandibar.
Batzordeburu: Maite Arana Perez.

BOSTGARREN PUNTUA

KORPORAZIOA ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATUTETARAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Une honetan, indarrean dagoen legedia betez, Udalbatzak, aho batez, jarraian aipatzen diren organo kolegiaturentzat ondorengo ordezkariak izendatzea erabakitzen du:

Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea:


Titularra: Aitor Beistegui Fiallegas

Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

Tolosako Hiltegi Mankomunatua:

Titularra: Jesus Maria Tejada Cantero

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:

Titularra: Maite Arana Perez

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas

Tolosaldea Garatzen:

Titularra: Maite Arana Perez

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas

Apatta-erreaka industrigunea:

Titularra: Aitor Beistegui Fiallegas

Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:

Titularra: Aitor Beistegui Fiallegas

Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

Tolosaldeko komunikabideak:

Titularra: Maialen Alosa Labandibar

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea:

Titularra: Maialen Alonso Labandibar

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas

Kirol Elkarteak:

Titularra: Jesus Maria Tejada Cantero

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas

Pello Errota Eskola

Titularra: Maialen Alonso Labandibar

Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas


SEIGARREN PUNTUA

ALKATEORDEA IZENDATZEKO ALKATE ANDREAK HARTUTAKO EBAZPENEN EZAGUTZEA

Alkate andreak hitza hartzen du azaltzeko **57/2019** ebazpenen bidez Maialen Alonso Labandibar zinegotzia 2. Alkateordea izendatu duela .

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

ZAZPIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA SORTU ETA PARTE IZANGO DIREN KIDEEN IZENDAPENARI BURUZKO ALKATE ANDREAK HARTUTAKO EBAZPENEN EZAGUTZA

Alkate andreak hitza hartzen du azaltzeko **58/2019** ebazpenen bidez Tokiko Gobernu batzordea osatzen duela, eta bertako kideak izendatu dituela. Aipaturiko ebazpena ondorengoa delarik.

58/2019 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 20. artikuluan eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak (7/1985 Legearen) 35. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan; horrela bada Gobernu batzordea beharrezko organoa da 5.000 biztanletik gorako herrietan eta gutxiagotan aukerazkoa, eta Arautegi Organikoak hala ezartzen duenean edo udalbatzarrak hori erabakitzen duenean.

Alkateak proposatzen du berau eratzea beharrezko jotzen duela nahiz eta Larraulek ez dituen 5.000 biztanle eta ez duen onartu Arautegi Organikorik.

Udal eskumenen barne nahiz kanpo funtzionamendurako eraginkorrago ikusten du eratzea. Gobernu Batzordeak izaera irekia izango du parte hartu nahi duten zinegotzi guztientzat nahiz eta bertako kide ez izan.

Kontuan harturik aipatutako lege xedapenaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra, Alkatea eta zinegotzietatik osatuko dela, eta azken hauek ezin dutela osoko bilkurako herena baino gehiago izan; hiru kide izendatzen dira.

Kontutan harturik 7/1985 Legearen 23. artikuluan eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikuluan arabera, alkatearen eskumena dela Tokiko Gobernu Batzarraren kideak izendatzea, gero Osoko bilkurari horren berri emanez.


Kontutan harturik 7/1985 Legearen 21. artikuluan eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 artikuluan arabera, Alkateak bere eskumenak delegatu ditzakeela, besteak bete Tokiko Gobernu Batzordean.

Aipatu guztiagatik

EBAZTEN DUT

BAKARRA.- Tokiko Gobernu Batzordek kide hauek izendatzea:

- Lehendakaria: MAITE ARANA PEREZ
- Bokalak: AITOR BEISTEGUI FIALLEGAS eta MAIALEN ALONSO LABANDIBAR



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

ZORTZIGARREN PUNTUA

GOI KARGUEN ASISTENTZI DIETAK ETA ASEGURUEN ONESPENA, HALA BADA

Ondoren goi karguen asistentzi dieta eta goi karguen bizi aseguruaren gaia tratatzen da. Ondorengo delarik proposamena.

- Asistentzi dietei buruz: -Ohiko Udalbatzarretara etortzeagatik 200 euro
- Ez-ohiko Udalbatzetara etortzeagatik 75 euro
- Gobernu Batzordetako bilerara etortzeagatik: 75 euro
- Batzorde informatzaile bilerara etortzeagatik: 75 euro

Aseguruari buruz, aipatu, zinegotzien bizi aseguruaren aurrekontu bat eskatu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udalbatzako partaideei udal organoen bileretara etortzeagatik ondorengo dietak jasotzea onesten da:

- Ohiko Udalbatzak: 200 euro
- Ez Ohiko Udalbatzak: 75 euro
- Gobernu Batzordetako bilera: 75 euro
- Batzorde informatzaile bilera: 75 euro

BIGARREANA: Alkate eta zinegotziei bizi aseguru bat egitea onesten da.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.